



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 8a

135. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzen duena. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (8. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da EKS-Erabilera-Lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Gobernu zentralarekiko jarrera mantentzeko borondatea duela 2017an lortutako superabitetik eskuratutako 113 milioi euroak Legebiltzarrak onetsitako inbertsioetara bideratzeko xedea dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Katalunian gertatzen ari den salbuespen demokratikoko egoera. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela Kataluniako gizartean dauden jarrera politikoaren artean hitz egitea eta negoziatzea. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Corellako “Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—José Luis Ezquerro Royo jauna Nafarroako Kontuen Ganberaren idazkari orokor izendatzea (15. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko urriaren 2ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### **1. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4. artikulua a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“a) Norberaren kultur adierazpena libreki aukeratzeko eskubidea, kultur kolektibo bateko edo batzuetako kide izatekoa, eta hautaketa hori errespetatua izatekoa, kultur aniztasunerako eskubidea babestuta egon dadin”.

Zioak: “Identitate” eta “erkidego” hitzen ordeza “adierazpen” eta “kolektibo” hitzak sartzen dira, ulertuta kultura ez dela jabetzapeko zerbait, baizik eta irekia dela. Proposatzen ditugun terminoek hobeki adierazten dute errealitate soziala.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4. artikulua d) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“d) Ekoizpen eta sorkuntza, literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea, eta talentuaren eta sormen gaitasunaren garapenerako, bai eta horien emaitzak zabaltzea eta banatzeko ere”.

Zioak: Berriazko aipamen bat sartzea sormen literarioari buruz, Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikulua eta beste testu batzuek egiten duten bezala, eta foru lege proiektuak berak beste apartatu batzuetan egiten duen bezala.

#### **3. ZUZENKETA**

##### **GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Honako testu hau kentzen da:

“d) Sorkuntza artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea, eta talentuaren eta sormen gaitasunaren garapenerako, bai eta horien emaitzak zabaltzea eta banatzeko ere”.

Eta horren ordeza ondoko hau jartzen da:

“d) Ekoizpen eta sorkuntza, literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea, eta talentuaren eta sormen gaitasunaren garapenerako, bai eta horien emaitzak zabaltzea eta banatzeko ere”.

Zioak: Berriazko aipamen bat sartzea sormen literarioari buruz, Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikulua eta beste testu batzuek egiten duten bezala, eta foru lege proiektuak berak beste apartatu batzuetan egiten duen bezala.

**4. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

5. artikularen 1. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“1. Foru lege honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan aurreikusitako baldintzetan, Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bermatuko dute kultur eskubideak osotara eta libreki erabiltzea egiazko berdintasuneko araubidean, horretarako behar diren aurrekontu-neurriak hartuz, bai eta behar diren gainerako neurriak ere, izaera positiboa eta sustatzeko helburua dutenak barne”.

Zioak: Eskubide bermatuei buruz ari garen neurrian, nahikotasun ekonomikoa aipatu beharra dago, botere publikoek hura bete dezaten.

**5. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7. artikularen 3. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“3. Herritarrentzako informazio eta arreta Euskarari buruzko Foru Legean, hura garatzeko araudian eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoan xedatutakoarekin bat emanen dira”.

Zioak: “Euskarari buruzko araudia” hitzen ordez “Euskarari buruzko Foru Legean, hura garatzeko araudian” hitzak erabiltzea proposatzen dugu, erregelamendu indarduna hobeki bermatzeari egokitzen zaiolakoan.

**6. ZUZENKETA**

**EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Kulturarako irispide birtualari buruzko 8. artikularen 3. punturen amaieran paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako erakunde kultural, zientifiko eta hezkuntzakoek, funts publikoekin sostengatzen

edo finantzatzen direnek, atari horretan jarri beharko dituzte lanketa eta ikerketa berekietako materialak eta emaitzak, jatorrizkoak zein eskuratutakoak”.

Zioak: Segurtatzea gizarteari itzuliko zaiola, kultura libre eta komunalaren kontzeptuak garatuz, erkidego osoaren ekarpen ekonomiko eta sozialaren bitartez lortutako kultur aberastasun guztia.

**7. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10. artikularen 2. puntuaren ondoren honako hau dioen beste puntu bat gehitzeko zuzenketa:

“2. bis. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa izanen zaio, halaber, Interes kulturalaren deklarazioa duten ondasunei, Eliza Katolikoaren jabetzakoei, sarbide publikoa ahalbidetu ahal izateko kasuan kasuko lankidetzak akordioaren bitartez; hori, halere, ez da eragozpena izanen aurreko puntuan aurreikusitako eskubiderako”.

Zioak: Kontuan hartuz Nafarroako ondarearen zatirik handiena erlijiosoa dela eta Eliza Katolikoa-ren jabetzakoa dela, premiatzen da behar diren akordioak sina daitezkeen ondare hori bisitagarria izan dadin, daukan interes orokorra dela eta, Administrazioa edo jabea kaltetu gabe eta artikuluan jasotako eskubideak bermatuz.

**8. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10. artikuluan beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“7. “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak begiratuko du zuzen proiektatzen eta zainitzen direla, eta azpimarra jarriko du zaharberritze-ekintza eta haiek egiten dituzten profesionalak zuzenak izatean, eta hori aldeztuko du”.

Zioak: Gainerako artikuluetan behar den egiaztagiria duten pertsonak direla-eta eskatzen den bezala, eta zainketaren eta zaharberritzearen irizpide orokorreki erreparatuta, beharrezkoa da Administrazioak haien iraupenaren alde egin dezan.

**9. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

13. artikuluan beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. Kulturaren arloko departamentu eskudunak zainduko du bilduma museografikoak zuzen zaintzen direla, eta haiek zuzen babesteko behar diren baliabideak jarriko ditu”.

Zioak: Bilduma museografikoek gainerako artikuluetan azaldukorako balio ahal izatearen bermea da haiek zuzen zainduta egotea eta Administrazioa inplikaturik egotea.

**10. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikuluan 2. puntua aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

“2. Kulturarako irispidea izateko eskubidea egiazkoa izaten laguntzeko, Nafarroako Gobernuak irakurketa sustatzeko eta hartarako irispidea izateko planak egin eta garatuko ditu; aldizka ebaluatu eta eguneratuko dira plan horiek, aurrekontuko zuzkidura egokia esleituko zaie, eta berrikuntza teknologikoetara moldatuko dira. Irakurketa sustatzeko eta hartarako irispidea izateko planek honako hauei emanen diete arreta berezia:

a) Haur eta gazteei, irakurtzeko ohitura sendotzeko.

b) Ospitaleetan edo egoitzetan dauden pertsonen.

c) Espetxeetan dauden pertsonen.

d) Desgaitasuna duten pertsonen eta dokumentu irisgarriak sortzearen.

e) Migranteen eta errefuxiatuen.

f) Oro har, sozialki ahulenak diren sektoreetako pertsonen”.

Zioak: Premia bereziak dituzten sektoreak identifikatzea, eta haiei begira irakurketa errazteko berriazko neurriak hartzea. Irakurketarako irispidea kontzeptu osagarri gisa hartzea. Nahiago da dokumentu irisgarriak buruzko aipamena apartatu honetan egitea, Nafarroako Gobernuaren erantzukizun gisa hartuta, eta ez konpromisoa soilik Kultura Departamentuarentzat xedatzen duen beste apartatu batean.

**11. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikuluan beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“6) Kultur arloko eskumena duen departamentuak bultzatuko ditu genero guztietako literatur sorkuntzaren aldeko baldintzak sustatzen dituzten plan eta programak, eta idazle berrientzako eta liburuaren argitalpenerako berriazko laguntza-tresnak gaituko ditu.”

Zioak: Kultur sorkuntzaren beste arlo batzuei buruzko arauetan ez bezala, ia ez da literatur sorkuntzaren aipamenik egiten, suposatuztat emanda artikulua honek aipagai dituen liburuak erakundearen laguntza eduki behar izan gabe sortzen direla. Literatur sorkuntzaren zati garrantzitsu batek laguntza hori behar du, zeren eta argitalpenen industria soilik edo nagusiki zentratzen baita etekin ekonomiko handiena duenean.

**12. ZUZENKETA****NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

14. artikuluan beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“7. Beharrian sozialei egokitutako liburutegi-eredu bat bultzatuko du, hura egokituz eskaintako irakurketa-plan eta -zerbitzuei, gizartearentzat hur-bilagokoa den sistema digital bati egokituta”.

Zioak: Aurrerapen teknologikoek eta beharrian sozialek aldaketa bat eskatzen dute, beste autonomia-erikidego batzuetan egiten ari denaren ildotik, liburutegien eginkizunari eta haiek teknologia berriei eta arreta-emate digitalari egokitzeari dagokienez.

**13. ZUZENKETA****GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

14. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Beste apartatu bat, 6.a, gehitzea proposatzen dugu. Honako hau esanen du:

“Kultur arloko eskumena duen departamentuak bultzatuko ditu genero literatur sorkuntzaren – genero guztietakoaren– aldeko baldintzak susta-

tzen dituzten plan eta programak, bai eta beste arte-adierazpen batzuekin eta giza eta gizarte zientziekin lotutako gaien azterketa, kritika eta ikerketa ere, eta sortzaile eta idazle berrientzako eta liburuaren argitalpenerako berariazko laguntza-tresnak gaituko ditu".

Zioak: Kultur sorkuntzaren beste arlo batzuei buruzko arauetan ez bezala, ia ez da literatur sorkuntzaren aipamenik egiten, suposatuztat emanda artikuluko honek aipagai dituen liburuak erakundearen laguntza eduki behar izan gabe sortzen direla. Literatur sorkuntzaren zati garrantzitsu batek laguntza hori behar du, zeren eta argitalpenen industria soilik edo nagusiki zentratzen baita etekin ekonomiko handiena duenean.

#### 14. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

15. artikuluko 2. puntuaren c) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

"c) Ikus-entzunezko sorkuntza, kultur izaerakoa, adierazpide guztietan sustatuko duten planak eta programak bultzatuko ditu..."

Zioak: Lege honek kultur eskubideak aitortu eta sustatzen ditu, eta guzti-guztia ez da hartan sartzen. Guztia ez da kultura, eta ikus-entzunezko sorkuntza askoren xede bakarra propaganda- edo merkataritza-izaerakoa da; halakorik bultzatu eta sustatzea, merezi baldin badu, ez da lege honetan helburuan sartzen.

#### 15. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

"a) Arte eszenikoen eta musikaren sektore profesional eta amateur-ek Nafarroako Foru Komunitateko arlo horietako kultur politikak diseinatu eta garatzen parte har dezaten sustatuko dute".

Zioak: Arte eszenikoen eta musikaren sektorearen errealitate soziala aitortzea, partaidetzat hartuz bai profesionalak, bai gizarteko kide amateur-erak, sektore horretako ekintzekin batera bizi direnak eta haietan beste batzuekin batera parte hartzen dutenak.

#### 16. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako honekin ordeztuko da:

b) Gizartean arte eszenikoen eta musikak prestigioa har dezaten begiratuko dute, berez balio handia duten adierazpide soziokulturalak eta artistikoak diren aldetik, eta sustatuko dute haien praktika, ikusle eta entzuleen prestakuntzari begira duen garrantziari arreta emanez bereziki, bai eta hura egiten dutenei ere, sektore profesionaletik nahiz amateur-etik etorri, ez bata ez bestea kaltegabe".

Zioak: Sektore honek daukan balioa aitortzeak berekin dakar hura posible egiten dutenak balortzea, berdintasun-baldintzetan, eta bi sektore horiek, profesionala eta amateurra, dira zein bere bidetik gizartean eragiten dutenak.

#### 17. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

18. artikuluko 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

"4. Aurreko apartatuetan xedatutakoaz gain, Nafarroako udalerriak, bakarrik edo udalez gaindiko entitateen bitartez, kultur ekipamenduen arloan dituzten eskumenez baliatuz, gertuko kultur ekipamenduak, langile profesionalak dituztenak, edo sorkuntzarako gune kogestionatuak eta autogestionatuak izateko neurriak hartzen saiatuko dira".

Zioak: Hurbiltasuneko kultur-ekipamenduen zuzkidura sustatzea udal udalerrietan, autogestio-ereduaren bidez.

#### 18. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

24. artikuluan beste puntu bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"2. Kultur sorkuntzan, edozein modutan, diharduten pertsonen eskubidea dute zergen ikuspuntutik tratamendu arrazoizkoa, orekatua eta bidezkoa edukitzeko, kasua bada jarduera horretatik

datozkien diru-sarreraren irregulartasunari eta aldizkakotasunari, bai eta beste jarduera profesional edo ekonomiko batzuekiko izaera osagarriari ere, begiratuta”.

Zioak: Diputatuen Kongresuko Artistaren Estatutuari buruzko Azpibatzen berriki egindako txostenean agerian jarri den bezala, kultur sorkuntzaren jarduerak ezaugarri berezi batzuk ditu, eta horiei, oro har, ez zaie garrantzirik eman izan, eta zerga-araudi desegokia aplikatu zaie, erreferentziatzen hartuta oso bestelakoak diren lan- edo enpresa-jarduerak, askotan egile-eskubideak jasotzen dituztenak larriki zigortzeraino.

## 19. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

30. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua, hitzez hitz:

“30. bis artikulua. Nafarroako administrazio eta erakunde publikoetako argitalpenetarako irispidea eta haien erabilera.

Nafarroako administrazio eta erakunde publikoen berezko argitalpenetarako irispidea eta haien erabilera Kultura Libre eta Komunalaren printzipioen arabera egiten dira, Copyfarleft-aren oinarriak jasotzen dituzten lizentzien bitartez. Horretarako, Nafarroako administrazio eta erakunde publikoek kasuko sorkuntza-eskubideak lortu eta haiek laga egiten ditu.

Zioak: Gure ustez Kultura Libre eta Komunala kulturaren demokratizatorako oinarriak dira, kultur arloko politikaren ezaugarri bihurtu behar direnak, eta printzipio horien aplikazioa ahalbidetzeko, ezinbestekoa da Administrazioak kasuko sorkuntza-eskubideak lortzea eta gero eskubide horiek lagatzea.

## 20. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

33. artikuluko 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“4. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute erabiltzen ez diren titulartasun publikoko gune batzuk erabilgarri egotea bertan arte eta kultur sorkuntza bultzatzen duten ekimenak garatzeko; berrikuntza ere bultzatuko dute kudeaketa ereduatan, kogestioa eta autogestioa barne”.

Zioak: Erabiltzen ez diren espazio publikoen errentagarritasun soziala sustatzea, ahiek ekimen artistiko eta kulturalen esku utziz.

## 21. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

35. artikuluarik gehiketa egiteko zuzenketa. 35. artikuluarik paragrafoari jarraipena ematen zaio honako testu honekin:

Kulturaren finantzaketa publikoa bermatzeko, Nafarroako Gobernuak aurrekontu kreditu egokia ezarriko du kultur arloko eskumena duen departamentuarentzat aurrekontu orokorrak prestatzean, eta hurbildu egiten da Nafarroako Foru Komunitatearen antzekoak diren Europako erregioen batez bestekora”.

Zioak: Aurrekontua handitzeko behin eta berriz eskatzen denez, gogoeta egin beharra dago Nafarroak kulturaren egiten duen inbertsioa handitzeari buruz eta kulturaren kokalekuari buruz. Gure erki-degoaren antza handiena duten Europako herrialdeak dira gune komunaren isla egokia.

## 22. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

36. artikuluarik 2. puntua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2. Diru-laguntzetarako eta laguntzetarako deialdiak, oro har, urtearen lehen hiruhilekoan argitaratu behar dira NAOn”.

Zioak: Administrazioek eta kultur sektoreek laguntza horiek lortzeko kudeaketak egiteko gaitasuna handitzen da; sektore horrek lehendik adierazitako eskaera bat da.

## 23. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERIDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa. 37. artikuluarik 2. puntua jarraipena ematen zaio; hona testua:

“2. Nafarroako administrazio publikoek, bereziki, mikromezenasgoa sustatu eta bultzatuko dute, horretarako berariazko ekintzen bitartez”.

Zioak: Mezenasgoari buruzko Legearen garpena da; izan ere, ekintza zehatzagoak ezarri behar dira.

#### 24. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO  
GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI ETA  
NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO ETA  
NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Azken xedapenei laugarrena gehitzeko zuzenketa. Hona testua izanen du hitzez hitz:

“Azken xedapenetan laugarrena. Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Legearen aldaketa.

Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10. artikulua 5.a) apartatua aldatzen da. Honela geldituko da:

“5. Haurrak eta gazteak babesteari buruzko xedapenetan ezarritako mugak kendu gabe, ez da baimenik emanen hamasei urtetik beherakoak sartzeko edo parte hartzeko honako josteta-ikuskitan edo -jarduera hauetan:

a) Dantzaleku, diskoteka edo antzekoak, salbu eta zuzeneko emanaldiak daudenean; halakoetan, izan ere, hamasei urtetik beherakoak beren guraso edo tutoreekin sartu ahalko dira. Emanaldiak irauten duen bitartean zuzen identifikaturik egonen dira eta emanaldia amaitzen denean adingabeek ezin izanen dira establezimenduan geratu”.

Zioak: Martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 10.5 artikulua a) apartatua aldatzea proposatzen da, adierazitako moduan, zertarako eta errazteko eta sustatzeko adingabeek kultur eskubideez baliatu ahal daitezela, baina muga batzuk ezarri adingabeek kulturarako duten eskubidearen eta haien babesa segurtatzeko betebeharraren artean behar den oreka bermatze aldera.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, María Teresa Sáez Barrao andreak emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proposamena, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aldatzen duena**

### ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak 9.2 artikuluan ezarritzen duenez, botere publikoak behartuta daude berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin bermatzera, eta, horretarako, hura galarazten edo eragozten duten traba guztiak kendu beharko dituzte. Konstituzioan jasotako oinarriko eskubideen artean badira batzuk lotura estua

duenak emakumeen kontrako indarkeriarekin: pertsonaren duintasuna (10. artikulua); diskriminaziorik ez jasateko eskubidea (14. artikulua), bizirako eta osotasun fisiko nahiz psikikorako eskubidea (15. artikulua) eta askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea (17. artikulua).

Horrenbestez, erakundeek badaukate betebeharra emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko; besteak beste, egungo araudia berrikusiz, lege berriak idatziz, horiek garatzeko eta egiaz aplikatzen direla ziurtatzeko bitartekoak ezarriz, bai eta haien eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatuz, disfuntzioak dituzten alderdiak zuzentzearen.

Betebehar horri erantzunez onetsi zen Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, zeinak biktimen/bizirik atera direnen defentsarako mekanismoen lehen sorta bat ezarri baitzuen.

Halere, etengabe planteatzen dira agertoki berriak, emakume biktimen/bizirik atera direnen eskubideen bermeak indartzea ahalbidetzen dutenak; hori dela-eta, komenigarria da legea aldatzea.

Zehazki, azken urteotan zenbait ekimen ari dira garatzen biktimei/bizirik atera direnei laguntza soziala eta psikologikoa eskaintzeko; esaterako, indarkeria matxistaren biktimei txakur bizkartzainen bidez laguntza emateko edo lagun egiteko proiektuak. Baliabide horiek esperantza-leiho bat irekitzen dute babes behar duten zenbait emakumerentzat, eta neurri hori da, hain zuzen ere, segurtasun handiena ematen diena, indarkeria matxistaren aurkako borrokan espezializatutako erakundeek diotenez. Neurri hori osagarria eta kasuan-kasuan baloratzekoa da, eskariak eta erabiltzailea nahiz txakurra baliozkotzeko beharrezkoak diren neurrien segurtasunaz gain.

Laguntza-txakurrak biktimen babeserako neurri eraginkor gisa aintzat hartzeko xedez onesten da honako lege-aldaketa hau.



**Artikulu bakarra.** Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen aldaketa.

VII. tituluko –Poliziaren arreta eta babes eraginkorra– 61. artikuluan 2. apartatua aldatzen da, halako moduan non honako testu hau izanen baitu:

“2. Babes lanetan baliabide teknologikoak, zerbitzu polizialak eta emakumeen babes eta babes neurri judizialen eraginkortasuna bermatzen duen beste edozein baliabide erabiliko dira. Emakumeen babes ziurtatzeko neurri gisa ezarriko dira, halaber, indarkeria matxistaren biktimek erabilitako babes-txakurrak.

Genero-indarkeriaren egoera batean edo hura jasateko arriskuan dauden emakumeentzako babesbideek helburu hauek dituzte:

a) Etengabeko lokalizazioa eta komunikazioa erraztea.

b) Urrunetik berehalako arreta ematea.

c) Berehalako babes egokia ematea larrialdietan”.

**Xedapen iragankor bakarra.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak emanen ditu hiru hilabeteko gutxieneko epean, eta horretarako Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren nahiz Gobernuaren bestelako erakunde eskudun batzuen laguntza izanen du.

Halaber, txakur-trebakuntzaren eta genero-indarkeriaren arloko adituen aholkularitza ziurtatuko du.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da EKS-Erabilera-Lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai eta Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erabilera-lagapenaren kooperatiba seniorren (CSCU) jarraipenerako lan-talde misto bat era dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Populazioaren zaharkitzeari buruzko datuak zirrarazkoak dira gure gizartean: lau urte barru % 22 baino gehiagokoa izanen da Nafarroan 65 urte baino gehiagoko pertsonen tasa; horietatik % 92k –130.000 pertsona inguru– 60tik 80 urtera bitarte edukiko dugu. Kontuan hartu behar dira beste aldaketa sozial batzuk ere: erretiroko adinera helitzean, etxe berean hiruzpalau belaunaldi biltzetik bakar bat gelditzera igaro dira familiak. Halatan,

hirugarren adinaren arazoa familia-auzi bat izate-tik egiturazkoa izatera igaro da. Horrenbestez, bizitzako etapa horretarako planteamendu berri-tzaileak egin beharra daukagu.

Nafarroako Foru Komunitateko Administra-zioak, aldaketa horien jakitun, Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako 2017-2022 Estrategia onetsi du.

Testuinguru sozial horretan ari dira sortzen EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Senio-rrak. Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba horiek ekimen pribatukoak dira, baina administrazio publikoek badute laguntzaile gisa parte hartzeko aukera (parte hartze hori hitzarmenen edo gisako formulen bidez arautzen ahal da). Horien interes soziala datza zaharren beharrezanean –zaharrena gizarteko kolektibo gero eta handiagoa da, orain dela 20 urtekoaren ezaugarri kultural, sozial eta ekonomikoetatik oso urrun– erantzun positibo, berritzaile eta gaurkotu bat ematean.

EKSak bizitza-luzera era positiboan berrasma-tzen lagundu nahi duten proiektu sozialak dira, administrazio publikoak eta gizarte zibilak azken helburu berarekin lankidetzan aritzearen bidez: biztanle zaharrenek eguneroko bizitzan aktiboki jarraitzea. Edadetuen jarduera mantentzea erraz-ten da, gizarteari beren ekarpena egiten jarrai dezaten, herritar eskusiboki pasibo bihurtu gabe, prestazioen eta zerbitzuen jasotzaile huts bihurtu gabe. Horrela ekidin daiteke administrazio publi-koak laguntza-betebeharrez gaitzartzea.

Europa iparraldean egindako ikerketa ugarieta-tik ondorioztatzen denez, gisa horretako proiektuak ezartzen direnean hobetu egiten da pertsona elkartuen eta haien familien ongizatea, eta men-dekotasunerako laguntzaren alorrean Administra-zioak eman beharrekoak diren gizarte- eta osa-

sun-zerbitzuetako arreta sinplifikatu egiten da, horrek dakarren aurrezpen publiko handiarekin.

EKS horietako bat da Etxekonak Bat. Planteamendu berritzaile bat jartzen du mahai gainean, horretan oinarriturik hirugarren adin aktibo baterako konponbide on bat finkatzeko. "Hirugarren adineko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatiba" formulapean eratu da, erabilera-lagapenaren araubidean, irabazi-asmorik gabe eta gizarte-ekimenari jarraikiz. Kooperatiba senior bat da, zeinen estatutuek ezartzen baitute gutxienez ere haren bazkideen % 80 izanen dela 60 urte baino zaharragoa adinez. Lursailak eta eraikinak kooperatibaren jabetzakoak izanen dira, eta bazkideek beren bizitza osoan zehar (erabilera-lagapena) erabili ahal izanen dituzte horiek, bai eta eskaintzen ahal diren zerbitzu osagarriak ere. Sistema horrek kooperatibaren jarraitutasuna bermatzen du, kooperatibako kideen lasaitasunerako eta orubearen jabe den administrazioaren segurtasunerako.

Etxekonak Bat guztiz doitzen zaio, helburuei eta bitartekoei dagokienez, Nafarroako Gobernuaren Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako 2017-2022 Estrategiari. Ekimen horrek aurrea hartzen du eta elkarrekin bizitzeko modu berritzaileak esperimendatu ditu, konponbidea emanen dietenak Administrazioak arian-arian erantzun beharreko gizarte-beharrizanei. Halaber, kokatuta dagoen ingurunean integratuta egotea bilatzen du; hartara, harrera ematen dion herriari edo auzoari bere zerbitzuak eskaintzen dizkio.

Gizarte-berrikuntzako ekimen hau adimen kolektiboko eta autozaintetako lan batetik abiatuta garatutako komunitate-mailako proiektu baten modura planteatzen da. Eredu aitzindari bat denez, Nafarroan zahartze-prozesuaren jarraipena egiteko laborategi bizi batek legez funtziona dezake, lankidetzan uztarturik egoiliarak, batetik, eta zahartze aktibo eta osasungarrirako zerbitzu eta produktu berriak ikertzen eta garatzen ari diren enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateak, bestetik. Nabarmendu beharra dago lehen urrats hori jada eginga dagoela; izan ere, Etxekonak Bat da Nafarroako Gobernuaren Gizarte Berrikuntzako Unitatearen barruko eredu-proiektuetako bat.

Hortaz, Etxekoak Bat eta gisako helburuak dauzkaten EKSak interes publiko, orokor edo sozialeko entitateak dira, pertsona adinduen mendekotasuna gibeleratzen duen bizikidetzaren antolamendua errazten dutelako, "medikuntza prebentibo" gisa jardunez. Hori guztia kontuan hartuta, eskatzen dugu botere publikoek proiektu hauen sorkuntza eta garapena susta ditzaten, mar-

txoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 31. artikuluan jasotzen den moduan.

Ekimen horien berri zuzenagoa izateko xedez, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak bi lan-bilkura egin ditu oraintsu bi kooperatiba seniorrekin: Etxekide, hilaren 7an; eta Etxekonak, 2018ko irailaren 14an.

Jakin badakigu gisa horretako proiektu berritzaileen sustapenak beharrezkoa dutela legeak eta gainontzeko arauak berariaz egokitu daitezten, halako moduan non foru erkidegoko lege-corporari gehituko baitzaizkio egin beharrekoak diren aldaketak. Eta beharrezkoa da orobat administrazio publikoek beren ohiko funtzionamenduan sar ditzaten kooperatiba horiek eska ditzaketan zerbitzuak. Horretarako, beharrezkoa da egokitzapen-ahalegin bat egitea eta jarduketak bateratuko dituen administrazio-koordinazioa.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du EKS-Erabilera-lagapenaren Kooperatiba Seniorren jarraipenerako lantalde misto bat era dezan, legeria indardunaren egokitzapenak koordinatuko dituen eta partaide gisa izanen dituen Foru Administrazioa, Nafarroako toki administrazioak eta gizarte-entitate interesdunak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arestian aipatutako lantaldearen konklusioak hartuta lehen txosten tekniko bat presta dezan gehienez ere bi hilabeteko epean, honako eduki bikoitz honekin: lehen parte batean EKS batek Nafarroako Administrazio Publikoaren berariazko errekonozimendua izateko bete beharreko baldintzak ezarriko dira; eta bigarrenan, berriz, berrikusi beharreko lege-alderdiak nahiz administrazio-funtzionamendukoak jasoko dira.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte-intereseko entitate gisa aitor ditzan horrelako kooperatibak (EKS), halako moduan non botere publikoek proiektu horien eratzea eta garatzea sustatuko baitituzte eta abal gisa balioko baitu haien ezarpenari laguntzeari begira.

Iruñean, 2018ko azaroan

Foru parlamentariak: Jokin Castiella Imaz, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano Sala, Teresa Sáez Barrao, Nuria Medina Santos eta Marisa De Simón Caballero

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Gobernu zentralarekiko jarrera mantentzeko borondatea duela 2017an lortutako superabitetik eskuratutako 113 milioi euroak Legebiltzarrak onetsitako inbertsioetara bideratzeko xedea dela-eta.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Gobernu zentralarekiko jarrera mantentzeko borondatea duela 2017an lortutako superabitetik eskuratutako 113 milioi euroak Legebiltzarrak onetsitako inbertsioetara bideratzeko xedea dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du beharrezkoa dela Konstituzioaren 135. artikulua

eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legea indargabetzea, autonomia erkidegoen autonomia fiskala deuseztatzen dutelako eta lege mailara igotzen dutelako zor publikoaren ordainketaren lehenespena, gizartearen gehiengoaren interesen gainetik”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu Katalunian gertatzen ari den salbuespen demokratikoko egoera.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak salatzen du Katalunian gertatzen ari den salbuespen demokratikoko egoera, are larriagoa dena Fiskaltzak eta Estatuaren abokatutzak Kataluniako buruzagi independentisten kontra eginiko akusazioen eta haientzat eskaturiko espetxe zigor txit astunen ondorioz.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du erabat neurrigabeak eta estatu demokratiko baten izaeraz bestelakoak direla akusazio eta espetxe-

eskaera horiek, bere elkartasuna adierazten die afera horretan auzipeturiko pertsona guztiei, eta berehalakoan aske utz ditzaten eskatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du elkarriketarekin, demokraziarekin eta eskubide zibil eta politikoekin duen konpromisoa, eta uste du beharrezkoa dela Estatuko botereek ez jarraitzea errepresioaren estrategiarekin eta erantzun demokratiko bat ematea Kataluniako gatazka politikoa-ri”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baitio beharrezkoa dela Kataluniako gizartean dauden jarrera politikoen artean hitz egitea eta negoziatzea.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Kataluniako gizartean dauden jarrera politiko ezberdinen artean –independentistak, federa-

listak, autonomistak...– eta Kataluniako erakunde- en eta Espainiako Gobernuaren artean hitz egitea eta negoziatzea, dagoen gatazka politikoari konponbide politiko bat eman ahal izan dakion”.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Corellako “Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Corellako “Arteak” izeneko natur monumentuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak zer jarduketa egin ditu udako hilabeteetan zehar Corellako "Arteak" izeneko natur monumentuan?

Corellan, 2018ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**José Luis Ezquerro Royo jauna Nafarroako Kontuen Ganberaren idazkari orokor izendatzea.**

Nafarroako Gobernuako Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren irailaren 17ko 2082/2018 ebazpenaren bidez, 2018ko azaroaren 2tik aitzina eragindun erretiroa eman zaio Luis María Ordoki Urdazi jaunari, zeina egun horretara arte Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari orokorra izan baita.

Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 30. artikulua xedatzen du erakundearen legelarietako bat, lehendakariak izendatuta, izanen dela erakundeko idazkari orokorra, eta libreki izendatu eta kentzen ahalko dela. Gauza bera dio Kontuen Ganberaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduaren 4.3 artikulua.

Xedapen horiek kontuan hartuz, lehendakari honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

ERABAKI DU:

Lehena.- Erakunde honetako legelari José Luis Ezquerro Royo jauna Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari orokor berri izendatzea. Bera-ri egokituko zaio indarreko araudian lanpostu horretarako ezarritako funtzioak betetzea.

Bigarrena.- Luis Ordoki Urdazi jaunari eskerrak ematea erakunde honetako idazkari orokor gisa emandako zerbitzuengatik.

Hirugarrena.- Ebazpen hau José Luis Ezquerro Royo jaunari jakinaraztea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko azaroaren 5ean

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:  
Asunción Olaechea Estanga

